



LAGUNKOITASUN PLANA

2016-2019



AURKIBIDEA

EDUKIA

ZUMARRAGA LAGUNKOIA.....	3
Diagnostikoa	3
Lagunkotasun Plana 2016-2019.....	6
Metodologia:	6
1. Arloa: Aire zabaleko lekuak eta eraikinak.....	7
2. Arloa: Garraioa.....	23
3. Arloa: Etxebizitza	35
4. Arloa Gizarte sarea	39
5. Arloa: Errespetua eta Inklusioa.....	52
6. Arloa: Komunikazioa eta informazioa	56
7. Arloa. Gizarte Zerbitzuak	61
3. PLANAREN LABURPENA	63

Zumarraga Lagunkoia *Euskadi Lagunkoia* Sareari atxikiriko programa da, eta helburua du herritarren, elkarten eta sektore publiko zein pribatuaren parte hartzea sustatzea zahartzen ari diren pertsonen laguntzen dieten bizi inguruneen sustapenean lagunkotasun mugimendu bat garatzeko.

Munduko Osasun Erakundeak sustatutako “Age-friendly Environments Programme” ekimenean oinarritzen da proiektu hau.

Zer da?

“Zahartze aktiboa sustatzen duen hiri ingurune integratzailea eta irisgarria da adinekoekin lagunkoia den hiria.”

Helburu zehatzak:

- Adineko pertsonen udalerriko bizitzan eskain dezaketena baliatzea.
- Herritarren parte hartzeko prozesuak sortzea eta bultzatzea.
- Inguruneetan aldaketak egitea ahalbidetzea, herritarren bizi kalitatea hobetzeko.

DIAGNOSTIKOA

Zumarragako diagnostikoaren prozesua 2013-2015 urteetan egin zen. *Euskadi Lagunkoia* programari atxikitako lehen udalerrietako bat izan zen Zumarraga. Udalerrian egindako lanari hasiera emateko, bilerak egin ziren udaleko teknikariek eta arduradunekin, eta proiektua Udalbatzari aurkeztu zitzaion onar eta abiaraz zezan.

Hasteko, oro har herritarrei eta bereziki adinekoei galdetu zitzairen zer arazo topatzen zituzten egunerokoan, eta udalerriko alderdi negatiboak eta positiboak bereizteko ahaleginak egin ziren.

Proiektuaren premisetako bat da adinekoek parte hartzaile nagusi gisa inplikatu behar dutela, protagonista nagusi izan behar dutela, proiektuaren etapa guztietan, bai haien egoeraren deskribapenean eta adierazpenean, bai aldaketarako iradokizunak egiteko orduan, baita udalerrian identifikatutako arazoak konpontzeko ezarri beharko liratekeen hobekuntza proiektuei buruzko erabakiak hartzeko orduan ere.

Informazioa biltzeko tresna hauek erabiliz egin zen Zumarragako diagnostikoa:

A. Bigarren mailako iturrien azterketa.

Helburua: Udalerrian eskura dagoen informazio guztia biltzea, alderdi soziodemografikoei, hartan esku hartzen duten eragileei eta garatzen ari diren programei dagokienez.

B. Topaketak herritar taldeekin eta eragileekin.

Helburua: Herritarrekin eztabaidatzea udalerraren lagunkoitasun maila, ideiak biltzea eta proiektua garatzeko lantaldeak osatzeko herritar liderrak identifikatzea.

Guztira 2 topaketa egun ziren herritarrekin, eta denera 64 lagunek parte hartu zuten. Hona hemen topaketa horien osaera eta datak:

Topaketa Zaharren egoitzan: Bertaratuak:

egoitzako 54 bazkide

Data: 2013/11/20

Lekua: Zaharren egoitza
Topaketa Nagusilan-Gueske:

Bertaratuak: Nagusilan eta Gueskeko 10 bazkide

Data: 2013/12/04

Lekua: Zumarragako Zelai Arizti Kultur etxea

C. Lagunkoitasun galdetegiak.

Helburua: Adierazle kuantitatiboen bidez udalerrien lagunkoitasun maila ezagutzea.

Udalerrian bizi diren pertsonen betetako 378 galdetegi bildu dira guztira. Sexuen arabera bereizirik, 266 emakumek eta 152 gizonek erantzun zioten galdetegiari; eta adinaren arabera, 65 urtetik beherako 226 lagunek eta 65 urte gainditu dituzten beste 152ek. Beraz, lagin honen osaeran emakumeak dira % 68,6 eta gizonak % 30,9, eta % 58,2 15 eta 64 urte bitartekoak dira eta % 39,2 65 urtekoak edo adin hori gainditu dutenak.

2013ko azarotik 2014ko urtarrilera bitartean eraman zen burura galdetegiak biltzeko landa lana.

Hauexek izan ziren erakunde laguntzaileak:

- Udala
- Zaharren egoitza
- Gueske - Goierri-Urola Garaiko Esperientziaren Eskolako Ikasle ohien Elkarte Soziokulturala
- Nagusilan - Adin nagusikoen giza boluntarioritza
- Gainzuri Ikastetxe Publikoa
- Appalur - Asociación de prejubilados y pensionistas de Alto Urola
- Bi-tartean *Urretxu-Zumarragako Merkatari, Ostalaritza eta Zerbitzu Enpresen Elkarte*
- Adingabeekin hezkuntza arloan esku hartzeko mahaia
- Lorratz elkarte (11-18 urte)
- Lorratz elkarte (6-12 urte)

Bildutako informazio guztiarekin diagnostiko txostena egin eta Udalari aurkeztu zitzaion 2015eko abenduan.

Diagnostiko horixe da hemen aurkezten den Lagunkoitasun Planaren proposamenaren oinarria.



LAGUNKOITASUN PLANA 2016-2019

Lagunkoitasun Planaren helburua da udalerrian datozen 3 urteetan (2016-2019) arlo honetan aplikatuko diren politikak zehaztea.

METODOLOGIA:

Plana definitzeko, Udaletxeko Udal Zerbitzu guztien laguntza jaso da.

MOEk ezarritako gaikako 8 arloen arabera egituratzen da plan hau, eta arlo horiexek izan dira udalerriko diagnostikoan landu direnak:

1. Aire zabaleko lekuak eta eraikinak
2. Garraioa
3. Etxebizitza
4. Gizarte sarea
5. Errespetua eta inklusioa
6. Komunikazioa eta informazioa
7. Herritarren parte hartzea eta enplegua
8. Osasun eta Gizarte zerbitzuak

Hartan definituko dira arloak, jarduera helburuak, esku hartzeko ildoak eta aldi horretan zehar garatuko diren ekintzak.

1. ARLOA: AIRE ZABALEKO LEKUAK ETA ERAIKINAK

Kanpo inguruneak eta eraikin publikoek eragin handia dute adinekoen mugikortasunean, independentzian eta bizi kalitatean, eta “etxean zahartzeko” duten gaitasunari eragiten diote (MOE, 2007:16).

Jarduera arlo horretan, honako alderdi hauek ditu funtsezkotzat MOEK:

AIRE ZABALEKO LEKUAK ETA ERAIKINAK

- Leku publikoak garbiak eta atseginak dira.
- Berdeguneak eta aire zabaleko eserlekuak nahikoak dira kopuruz, egoera onean daude eta seguruak dira.
- Mantentze egoera onean daude espaloiak, oztoporik gabe daude, eta oinezkoek erabiltzekoak dira.
- Espaloiak irristagaitzak dira, aulki gurpildunetarako behar bezain zabalak, eta kordioak dituzte desnibeletan kalearen mailaraino.
- Oinezkoentzako bidegurutzeak nahikoak eta seguruak dira desgaitasun maila eta mota desberdinak dituzten pertsonentzat, eta irristatzeen aurkako markak, ikusizko seinaleak eta entzutekoak, eta gurutzatze denbora egokiak eskaintzen dituzte.
- Gidariak oinezkoen igarotzen uzten diete bidegurutzeetan eta oinezkoen bidegurutzeetan.
- Bizikleta bideak espaloietatik eta oinezkoentzako gainerako bideetatik bereizita daude.
- Kaleetako argiztapen egokiaren, polizia patruilen eta heziketa komunitarioaren bidez sustatzen da aire zabaleko segurtasuna.
- Zerbitzuak multzokatuta daude eta irisgarriak dira.
- Bezeroentzako zerbitzu bereziak eskaintzen dira, hala nola, ilarak edo zerbitzuko erakusmahaiak adineko pertsonentzat bereizirik.
- Eraikinak behar bezala seinaleztatuta daude kanpoan eta barruan, eserleku eta bainugela nahikoak dituzte, igogailu irisgarriak, arrapalak, eskudelak eta eskailerak, eta zoru irristagaitzak.
- Kanpoko eta barruko komun publikoak nahikoak dira kopuruz, garbi daude, mantentze egoera onean daude eta irisgarriak dira.

Iturria: MOE (2002): Adinekoekin lagunkoak diren hirietako oinarritzko alderdien kontrol zerrenda.

Arlo honetan, hauexek dira Zumarragako Lagunkoitasun Planaren helburu nagusiak:

- Bereziki adinekoen eta oro har herritarren parte hartze soziala eta herritarra sustatzea.
- Lagunkoitasun irizpideak biltzen dituen hiri plangintza integratzaile baten bidez, bizi osorako inguruneen sorrera sustatzea.
- Adineko pertsonak eta aniztasun funtzionala dutenak modu autonomoan bizi ahal izateko hiri segurua eta irisgarria sustatzea.
- Belaunaldien arteko topaketa ahalbidetzeko leku publikoetan esku hartzeak bultzatzea.
- Adinekoek jarduera fisikoko jarduerak egin ditzaten ahalbidetzea.

Jarduera ildoak:

1. Parkeak, aire zabaleko lekuak eta eraikin publikoak.
2. Herritarren segurtasuna

1. ILDOA: PARKEAK, AIRE ZABALEKO LEKUAK ETA ERAIKIN PUBLIKOAK

EKINTZA:

1. KOMUN PUBLIKOEN SAREARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA KOMUN PUBLIKO BAT INSTALATZEA LEGAZPIRANZKO BIDEGORRIAN.

Udal arloa:

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho
- Landa Garapena: Bitor Areizaga

Oharrak:

- Komun publikoak daude Bidegorrian, Zelai Arizti aparkalekuan eta aparkaleku intermodalean.
- Garbiketa: udal brigadak egunero garbitzen ditu (goiz eta arratsalde). Bidegorrikoa berez garbitzen da, baina astean bi aldiz eskuz ere garbitzen da.
- Ordutegia: Egunero zabalik 07:00etatik 22:00ak arte. Geltokian, beharrezkoa izan denean autobusen batek irten behar zuelako, egokitu egin da irekiera ordutegia.
- Udalak bandalismo arazoak hauteman ditu zerbitzu honetan.
- Legazpiranzko bidegorrian komun publiko baten instalazioa ez dago Zumarragako Udalaren esku, baina dagoeneko bat instalatu da.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	2017

EKINTZA:**2. PARKEETAN ARIKETA FISIKOAK EGITEKO EKIPAMENDUA JARTZEA****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho
- Landa Garapena: Bitor Areizaga

Oharrak:

- Ekipamenduak daude Bidegorrian, Antonino Oraa kalean, Aginaga auzoan eta Argixaoko Jose M^a Urdangarinen.

Gauzatze data:

2016-2017

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	2017

EKINTZA:**3. PARKE ITXI EDO ESTALI BAT EDUKITZEA EURIA EGITEN DUEN EGUNETARAKO.****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho
- Landa Garapena: Bitor Areizaga

Oharrak:

- Bada bat Elgarrestamendin
- Udalak ekintza hau udalerriko hainbat lekutan burutzeko aukerak aztertu eta balioetsi ditu (Zelai Aztiko parkean, RENFEren lubakian), baina neurri hori hartzea baztertu da ez delako ekintza abiarazteko gune egokirik aurkitu. Balioetsitako lekuak hainbat arrazoiengatik baztertu dira, hala nola, segurtasun, hezetasun eta zarata arazoengatik edo bertan aparkaleku bat izateagatik.
- Behar horri erantzuteko beste aukera batzuk aztertzen ari dira.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	X
Amaitua	

EKINTZA:**4. UDALETXEKO ARKUPEETAKO PERTSIANAK IXTEA ETA EGUN HOTZ ETA EURITSUETAN FRONTOIA IREKITZEA****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho
- Landa Garapena: Bitor Areizaga

Oharrak:

- Itxi egin da etxeoandreen nabea. Beloki frontoian badira jarduerak.
- Prozesu parte hartzaile baten bidez, oinezkoentzat bihurtu da Soraluze kalea.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	X

EKINTZA:**5. ZAHARREN EGOITZAKO IRISGARRITASUNA HOBETZEA.****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho

Oharrak:

- Eraikina eraberritzeko proiektua idatzi zen eta gauzatuta dago.

Gauzatze data:

2016ko maiatza-abendua: 1. fasea eta 2. fasearen % 64.

2017ko urtarrila-maiatza: 2. faseko obrak amaitu, sukaldea instalatu eta altzariz hornitu zen.

Aurrekontua

1.230.000 euro

Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bat dago 2016rako, 850.000 €-koa.

Enpresa adjudikaziodunaren eskaintzak aukera emango du proiektu osoaren % 65 gauzatzeko.

Ebaluaziorako adierazleak:

Bazkide kopurua: 1600 bi egoitzen artean

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	2017

EKINTZA:**6. PARKEETAKO ETA BERDEGUNEETAKO MANTENTZE LANAK HOBETZEA ETA MIGUEL LÓPEZ DE LEGAZPIREN ESTATUA INGURATZEN DUEN LORATEGIA ALDATZEA****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho

Oharrak:

- Udalak lorezaintza, eguneroko garbiketa eta haur parkeetako mantentze lanak eta zerbitzuak ditu kontratatuta.
- Hiru zerbitzu desberdin dira:
 - Maiztasuna: Lorezaintza egunero, lanaldi zatituan.
 - Maiztasuna: Bide garbiketa; kalearen arabera aldatu egiten da maiztasuna eta garbiketa mota
 - Haur parkeak: 15 egunean behin
- Miguel López de Legazpiren estatua inguratzen zuen lorategia kendu eta eserlekuak jarri dira haren lekuan. Udalbatzak burura eramandako prozesu parte hartzailea Soraluze-Euskadi Plaza-Legazpi erdi oinezkoentzako izateko proiektua aurkeztera mugatu zen.

Aurrekontua

Lorezaintza kontratua 2016an: 201. 588 €.

Beste mantentze lan batzuk: 13. 500 €

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	2022

EKINTZA:**7. TXAKURREN GOROTZAK JASOTZEKO ZAKARRONTZIAK INSTALATZEA.****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho

Oharrak:

- Bide garbiketa zerbitzuak aurreko lizitazioan jarri zituen txakurren gorotzak jasotzeko zakarrontziak eta behar bezala erabiltzen ez zirela ikusi zen. Txakurren gorotzak jasotzeko zakarrontziek ez dute eragin jabeek bide publikoetatik txakurren gorotz gehiago biltzea.
- Hala eta guztiz ere, zakarrontzi berriak erosi dira eta jende gehien ibiltzen den tokietan jarriko dira.
- Bestalde, informazio kanpaina bat egin da eta 2017ko urtarrilean txakurren jabe guztiei gutunak helarazi zitzaizkien araudia gogorarazteko. (Oraingoz ez da zehapenik izango)

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	2017

EKINTZA:**8. UDALETXEKO PLAZA ETA MONTERREY PLAZA BERDINTZEA****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho

Oharrak:

- Gauzatua Monterrey plazan (Iparragirre Etorbidea)
- Eginda dago Euskadi Plaza berrurbanizatzeko proiektua

Gauzatze data:

Monterrey: Urtarrilean amaitua

Aurrekontua:

Monterrey plaza (Iparragirre Etorbidea): 273.125,77 €.

50.000 €-ko partida bat da Soraluze-Euskadi Plaza-Legazpi proiektua idazteko.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	2022

EKINTZA:**9. HIRUKITIK EUSKADI PLAZAKO 5. ZENBAKIRA DOAZEN ESKAILERETAKO
ARRAPALA ETA ARGITERIA HOBETZEA****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho
- Landa Garapena: Bitor Areizaga

Oharrak:

- Argiak: Jai Alai 2 eraikineko fatxadan argi bat (Thylia) instalatu da Hirukitik Euskadi Plazara doazen eskaileren ondoan.
- Arrapala: Ezin da egin. Gaur egun dagoen arrapala da aukerarik onena apaindura multzoa ez urratzeko.

Aurrekontua:

Thylia argiaren hornidura: 1.736,74 €

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	X

EKINTZA:**10. GOIKO AUZOETARA IRISTEKO IGOGAILUAK KOKATZEA****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho
- Landa Garapena: Bitor Areizaga

Oharrak:

- Eginda dago kiroldegi ondoan eta gibelaldeko GI-2632 errepidearen gaineko pasabidean. Une honetan, Bidezar kalean dagoena geriatriko zaharra zegoen lekuraino luzatzea da aztergai.

Aurrekontua:

Igogailuaren aurrekontua 164.321,27 €-koa izan da. (Ez da barne hartzen igogailutik Esteban Orbegozorainoko oinezkoen arrapala moldatzeko obra zibila).

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	X

EKINTZA:**11. ZUMARRAGAKO ALDE BATZUETAN ESKUDELAK INSTALATZEA****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho
- Landa Garapena: Bitor Areizaga

Oharrak:

- 2022ko martxoan Zumarragako hainbat aldetan (ia udalerrri osoan) altzairu herdoilgaitzezko eskudelak eraikitze eta instalatzeko espedienteak abiarazi zen.

Aurrekontua:

199.125,68 €-koa izan da aurrekontua, eta urtebetekoa gauzatze epea.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	X
Amaitua	

2. ILDOA: HERRITARREN SEGURTASUNA

EKINTZA:

12. ZAINZA UDALERRIAN

Udal arloa:

- Udaltzaingoa
- Udaltzaingoko Koordinazio Batzordea

Arduraduna:

Jose Angel Maleta

Oharrak:

- Une honetan 15 lagunek osatzen dute Udaltzaingoa (1 ofizialorde, 4 agente lehen eta kaleko edo herritarren segurtasuneko 10 agente).
- Lantalde horrek 2 lan txanda betetzen ditu urteko egun guztietan. Txanda bakoitzean agente lehen 1ek eta kaleko 3 agentek lan egiten dute agindutako zeregin guztiak egiteko, besteak beste, herriko kaleetan eta kirol, kultura, ikastetxe, erlijio eta bestelako ekitaldiak izaten direnean herritarren segurtasuna zaintzeko.
- Halaber, segurtasun kontrolak egiten dituzte leku eta egun jakin batzuetan, gertaeren eta/edo beharrezan arabera (pentsioak kobratzeko egunetan bankuetatik gertu ibiliz, eremu jakin batzuk kontrolatuz eta zainduz tarteka delituak gertatzen direlako, pertsona liskartiak daudelako, etab.).
- Gero eta urriagoa da lan poltsa Euskadiko Udaltzaingok Koordinatzeko batzordean.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	X
Amaitua	

EKINTZA:**13. AUZOETAN ARGITERIA HOBETZEA****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Inplikaturako erakundeak:

Zerbitzu honetan, Udalaz gain, beste erakunderen bat baldin badago.

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho
- Landa Garapena: Bitor Areizaga

Oharrak:

- Leku hauetan instalatu da: Izazpin, Ipar Haizean, Elgarrestamendin, Jaka eta Linazasoron, Bidaurretan, Antonino Oraan, Argixaon, Barandiaranen, Renferen lubakian, Urdanetan, etab.
- Led berriak instalatu dira Bidaurretan, falta ziren aldean.

Gauzatze data:

2012- 2022

Aurrekontua:

Aurrekontua 14.588,26 € + BEZa izan da

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	X

EKINTZA:**14. ANTIGUAKO OSTATUTIK AUTOBUS GELTOKIRAINOKO ARGITERIA HOBETZEA****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Hirigintza: Mariano Cantalapiedra
- Obrak eta Zerbitzuak: Ainhoa Barbancho
- Landa Garapena: Bitor Areizaga

Oharrak:

- Bihurgunean bi aldiz ipini zen led zerrenda bana, baina lapurtu egiten dute.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	X

2. ARLOA: GARRAIOA

Garraioa, ikuspegi fisikotik eta ekonomikotik garraio publiko irisgarria barne hartuta, funtsezko alderdia da zahartze aktiborako. Gai hori estu lotuta dago beste eztabaida arlo askorekin. Bereziki, hirian barrena ibiltzeko trebetasuna erabakigarria da gizarteak eta herritarrek parte hartzeko eta osasun eta zerbitzu komunitarioetan sarbidea izateko (MOE, 2007: 24).

Jarduera arlo horretan, honako alderdi hauek ditu funtsezkotzat MOEk:

GARRAIOA

- Garraio publikoaren prezioak uniformeak dira, argi eta garbi adierazten dira eta irisgarriak dira.
- Garraio publikoa fidagarria eta ohikoa da, baita gauez, asteburuetan eta jaiegunetan ere.

- Hiriko eremu eta zerbitzu guztietara irits daiteke garraio publikoaren bidez, lotura eta bide egokiak ditu, eta ibilgailuak behar bezala markatuta daude.

Ibilgailuak garbi daude, mantentze egoera onean daude, irisgarriak dira, ez dira bidaiariez gainezka ibiltzen eta errespetatzen diren lehentasunezko eserlekuak dituzte.

- Badago desgaitasunak dituzten pertsonentzako garraio espezializatua.
- Gidariak geltokietan gelditzen dira, igoera errazteko kordioaren ondoan, eta bidaiariak eserita egon arte itxaroten dute ibilgailua martxan jarri aurretik.
- Modu egokian daude kokatuta garraio publikoko geralekuak eta geltokiak, irisgarriak eta seguruak dira, argi eta seinale egokiak dituzte, baita eserleku eta aterpe egokiak ere.

- Ibilbideei, ordutegiei eta behar berezietarako instalazioei buruzko informazio osoa eta irisgarria ematen zaie erabiltzaileei.

- Borondatezko garraio zerbitzu bat dago garraio publikoa oso mugatua denean.

- Taxiak irisgarriak dira prezioari eta prestutasunari dagokienez, eta gidariak atseginak eta prestuak dira.

- Bideak kontserbazio egoera onean daude, hustubide estaliak dituzte eta ongi argiztatuta daude.

Behar bezala erregulatuta dago ibilgailuen fluxua.

- Errepideetan ez dago gidarien ikus eremua eragozten duen oztoporik.

Bide seinaleak eta bidegurutzeak ongi ikusten dira eta behar bezala kokatuta daude.

- Gidari guztientzako bide heziketa eta eguneratze ikastaroak sustatzen dira.
-

Seguruak dira ibilgailuak gelditzeko eta bidaiariak jaisteko guneak, kopuruz nahikoak, eta estrategikoki kokatuta daude.

- Badira geltoki eta geraleku gune batzuk behar bereziak dituzten pertsonak jaisteko.

Iturria: MOE (2002): Adinekoekin lagunkoia diren hirietako oinarritzko alderdien kontrol zerrenda.

Ildo horretan, hauexek dira Planaren helburuak:

- Garraio publiko irisgarria bultzatzea.
- Herritar guztien artean garraio publikoaren erabilera sustatzea.
- Udalerriko bide segurtasuna hobetzea.

Jarduera ildoak:

1. Autobusa
2. Trena
3. Auto partikularra

1. ILDOA: AUTOBUSA

EKINTZA:

15. GELTOKIETAN MARKESINAK JARTZEA

Udal arloa:

Hiri eta Landa Garapena

Inplikatutako erakundeak:

Udala

Oharrak:

- Udalak ahal den leku guztietan jarri ditu markesinak.
- Ez du halakorik jarri gertu estalki bat dagoen lekuetan (eliz ataritik gertu, esate baterako) edo bidea inbaditu zezaketen tokietan.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	X

EKINTZA:**16. GELTOKIETAN ORDUTEGIA AGERIAN JARTZEA****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Inplikatutako erakundeak:

Foru Aldundia

Oharrak:

- Geltokietako markesina guztietan ordutegia ipinita dagoen arren, aldaketak daudenean udalerrian ekitaldi bat dagoelako edo ordutegiak aldatu direlako, udaltzainak izaten dira markesinetan orri berriemaileak jartzen dituztenak.
- Gaur egun pantailak instalatuta daude, eta Lurralde Bus zerbitzuak kudeatzen ditu.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	X

EKINTZA:**17. EGOKITUTAKO AUTOBUSAK EDUKITZEA, EDO HORIEN MAIZTASUNEN BERRI EMATEA****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Inplikatutako erakundeak:

Foru Aldundia

Oharrak:

- Foru Aldundiaren esku dago ekintza hau.
- Hautemandako beharizanaren berri eman zaio Aldundiari.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	2017

EKINTZA:**18. HIRIKO AUTOBUS BAT EDUKITZEA****Udal arloa:**

Hiri eta Landa Garapena

Arduraduna:

- Alkatea

Oharrak:

- Z-Bus programa, une honetan bertan behera utzia. Zerbitzu hau eskaintzen zuen:
 - Astelehenetik ostiralera 7 zerbitzu zeuden, Etxeberri auzotik abiarazi eta bertan amaitzen zirenak (7:40; 9:15; 12:00; 13:10; 15:15; 17:15; eta 20:00etan).
 - Zerbitzu horietatik 3 (13: 10; 15: 15; eta 17: 15etan) Antiguaraino igotzen ziren
 - Larunbatetan Etxeberri auzotik abiarazten eta bertan amaitzen ziren 2 zerbitzu zeuden 10:00 eta 12:00etan)
- 4-5 hilabeteko esperientzia pilotua zen.
- Gaur egun bertan behera utzitako zerbitzua da erabiltzaile gutxi daudelako.

Gauzatze data:

2015eko maiatza - 2015eko iraila

Aurrekontua:

45.000 euro.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	2017

2. ILDOA: TRENA

EKINTZA:

19. Igogailuaren bidez nasetarako sarbidea hobetzea.

Udal arloa:

Alkatea

Inplikatutako erakundeak:

RENFE - ADIF

Oharrak:

- NFE-ADIFen ardura
- Eginda daude nasetarako sarbidea hobetzeko lanak

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	2017

EKINTZA:**20. Trenen irisgarritasuna hobetzea.****Udal arloa:**

Alkatea

Inplikatutako erakundeak:

RENFE - ADIF

Oharrak:

- RENFE-ADIFen esku dago ekintza hau.
- Hautemandako beharrianaren berri eman zaio RENFE-ADIFI.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	2017

EKINTZA:**21. Hiriburuetaranzko (Donostia alde batera utzita) tren kopuru handiagoa izatea****Udal arloa:**

Alkatea

Inplikatutako erakundeak:

RENFE - ADIF

Oharrak:

- RENFE-ADIFen esku dago ekintza hau.
- Hautemandako beharrianaren berri eman zaio RENFE-ADIFI.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	2017

EKINTZA:**22. Txartel makinen irisgarritasuna hobetzea.****Udal arloa:**

Alkatea

Inplikatutako erakundeak:

RENFE - ADIF

Oharrak:

- RENFE-ADIFen esku dago ekintza hau.
- Hautemandako beharrianaren berri eman zaio RENFE-ADIFI.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	2017

3. ILDOA: AUTO PARTIKULARRA

EKINTZA: 23. Udalerrian barrena ibiltzean jokabide egokiari buruz kontzientziatzeko kanpainak						
Udal arloa: Udaltzaingoa/Jose Angel Maleta						
Inplikatutako erakundeak: Plan bateratua Urretxuko udalerriarekin						
Arduraduna: <ul style="list-style-type: none">Ramón Iturrioz						
Oharrak: <ul style="list-style-type: none">Trafiko Zuzendaritzak landuko du Autonomia Erkidegoko trafiko kanpainen egutegia, eta Zumarragako Udaltzaingoa bat egingo du kanpaina horietako batzuekin.“Desplazamenduan” parte hartzen duten guztiei (ibilgailuak, oinezkoak...) zuzenduta egongo dira jokabideari buruzko kanpainak.						
Gauzatze data: Eusko Jaurlaritzak definitzen ditu kanpainak Euskadiko Udaltzaingoko Koordinazio Batzordearekin batera.						
Betetze maila: <table border="1"><tr><td>Diseinua</td><td>X</td></tr><tr><td>Garapena</td><td></td></tr><tr><td>Amaitua</td><td></td></tr></table>	Diseinua	X	Garapena		Amaitua	
Diseinua	X					
Garapena						
Amaitua						

EKINTZA:**24. Zelai Arizti pareko bidegurutzean dagoen zebra bideko segurtasuna aztertzea****Udal arloa:**

Udaltzaingoa

Arduraduna:

Jose Angel Maleta

Oharrak:

- 2007. urtean onartu zen “Urretxu eta Zumarragako mugikortasun eta trafiko plan integrala”. Plan horretan, besteak beste, trafiko noranzko jakin batzuk ezarri ziren Elizkale, Iparragirre eta Filipinak Uharteak kaleetan, eta gainera, pasabide garai batzuk sortzea planteatu zen, horien artean Zelai Ariztikoa. Ekintza hori jada burutua da.
- Gainera, Iparragirre Etorbideko 1. zenbakiko plaza berrurbanizatzeko prozesuan asfaltoz estali da aipatutako kaleko tarte bat, eta goratu egin dira oinezkoentzako 2 pasabide.
- 2020. urtean autismoari buruzko sentsibilizazio kanpaina bat egin zen, eta oinezkoen pasabideetan piktogramak ipintzeko proiektua burutu zen.
- Aipatutako zebra bideko segurtasunari dagokionez, ikastetxeetan sartzeko eta irteteko ordutegietan aktiboa da udaltzainaren figura.

Betetze maila:

Diseinua	
Garapena	
Amaitua	X

3. ARLOA: ETXEBIZITZA

Etxebizitza funtsezkoa da segurtasunerako eta ongizaterako. Halako lotura dago etxebizitza egokiaren eta komunitate eta gizarte zerbitzuetarako sarbidearen artean, eta horrek eragina du adinekoen independentzian eta bizi kalitatean. Argi dago etxebizitzari eta adinekoei beren komunitatean modu eroso eta seguruan zahartzeko aukera ematen dien laguntzari buruzko balorazio unibertsala dagoela (MOE, 2007: 34).

Jarduera arlo horretan, honako alderdi hauek ditu funtsezkotzat MOEk:

ETXEBIZITZA

- Etxebizitzak eskuragarriak, nahikoak eta irisgarriak dira prezioei dagokienez leku seguruetan eta zerbitzuetatik eta komunitatearen gainerakorik hurbil.
- Mantentze lanetarako eta etxeko laguntzarako zerbitzu nahikoak daude, eta eskuragarriak dira prezioari dagokionez.
- Behar bezala eraikita daude etxebizitzak, eta klima faktoreen aurrean babesleku seguruak eta erosoak dira.
- Barruko espazioek eta maila bakarreko azalerek aukera ematen dute gela eta korridore guztietan askatasunez mugitzeko.
- Etxeak prezio irisgarrian moldatzeko hornidurak eta aukerak daude, eta hornitzaileek ulertu egiten dituzte adinekoen beharrianak.
- Garbiak dira alokatzeko dauden etxe publikoak eta saltokiak, kontserbazio egoera onean daude eta seguruak dira.
- Badira tokiko etxebizitzak zerbitzu egokiekin eta prezio irisgarrietan, adineko zaurgarrientzat eta desgaitasunak dituztenentzat.

Iturria: MOE (2002): Adinekoekin lagunkoia diren hirietako oinarritzko alderdien kontrol zerrenda.

Hauexek dira Plan honen helburuak:

- Bizi osorako etxebizitzaren sorrera sustatzea, lagunkotasunaren kontzeptua txertatuz.
- Etxebizitzak birgaitzeko eta egokitzeko laguntzei buruzko komunikazioa eta informazioa sustatzea.

Jarduera ildoak:

1. Bizi osorako etxebizitzak

1. ILDOA: BIZI OSORAKO ETXEBIZITZAK

EKINTZA:

